



Adiskidetasun Txapelketa bihartik aurrera Usabalen

TOLOSALDEA ▶

Bilboko atentatua gaitzetsi dute

Eudelek deitu zuen elkarretaratzera ▶ 2

TOLOSA ▶ Peña Blaugrana

Tolosarrak antolatuta, 12 selekziok hartuko dute parte txapelketan

HELBURUA ▶ Gizarteratzea eta

parte-hartzaileen arteko harremana sustatu nahi dute ▶ 4-5

Ipuinarteen proiektuaren bigarren edizioa, martxan

TOLOSA ▶ Etzi aurkeztuko dute erakusketa eta liburua Aranburun ▶ 2

TOLOSA ▶

Bihartik aurrera San Estebango Kultur Astea

Herri Krosarekin ekingo diote ▶ 6



E. EZEIZA

TOLOSA ▶

‘Karabas’ ipuin musikala aurkeztuko dute etzi Leidorren

Kampingags eta Golden Apple Quartet taldeen eskutik, 17:00etatik aurrera ▶ 3

TOLOSA ▶

Gazte txartelarekin zine-forumak bi euro

Gaur, ‘Delirious’ filma izango da ikusgai ▶ 3

Kimetz

denda berria

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Kulturaniztasuna bultzatuz, hemen da berriz Ipuinartean

Etzi aurkeztuko dituzte Aranburun erakusketa eta liburua



Ereite eta Les Fiseurs de la Belle elkarteetako ordezkariak, Aurelio Bicenterekin batera. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Ereite eta Les Fiseurs de la Belle elkarteek «kulturarkeko ohiturak sustatzeko» helburuz, Ipuinartean projektua sortu zuten joan den urtean. Aurten-goia bigarren edizioa izango da, eta honek ere, literatura, artea eta kultur aniztasuna nahastuko ditu.

Ekimen honek bost kontinenteetako ipuin, mitologia eta kondairak biltzen ditu. Hala, kultura ezberdinetako ipuinetan oinarrituta, artistek era guztietako artelanak egin dituzte. Honela azaldu zuten Ana Sanz Ereite elkarteak kideak proiektuaren garapena: «Has-teko, artistari, egokitu zitzaion

herrialdea zein zen esaten genion eta hango kondaira, mitologiako istorio eta betiko ipuin batzuk erakusten genizkion. Ondoren, honek hauetako bat aukeratzaren zuzen, edo nahiago bazuen beste bat bere kabuz aurkitzen saiatzen zen. Gero, istorio horretan oinarrituta, artelan bat egiten zuten, berak nahi zuten estilo eta materialekin». Bestalde, ezinbesteko baldintzetako bat zen, testuaren eta artistaren jatorri kulturala desberdina izatea.

Lan guztiaren ondoren, ipuinak zein obrak biltzen dituen erakusketa ibiltari bat eta liburua prestatu dituzte. Erakusketa, lehendabiziko egunetan Tolosako Aranburu Jauregian

egongo da ikusgai. Hau, etzi inauguratuko dute, 19:00etan. Ekitaldi berean aurkeztuko dute ere, proiektu honetako zati den liburua.

Erakusketaz gain, liburua

Ipuinartean I. Argitalpen honetan hogeita bederatziko kultura ezberdinen adierazgarri diren testu, ipuin, kondaira edo mitologiako istorioak biltzen dituzte. Testuak, euskaraz, gaztele-raz eta jatorrizko hizkuntzan daude idatziak, eta hauekin batera, dagokion artelanaren argazkia ikus daiteke. Liburuaren bi edizio desberdin argitaratu dituzte, bata Hego Euskal Herrirako eta bestea Ipar Eus-

INAUGURAZIO EKITALDIA ▶

HILAK 13, ETZI

19:00. Erakusketa eta liburuaren aurkezpena Aranburu jauregian.

23:00. Santa Maria plazan, Alurr dantza taldea, Mulamborekin batukada, pintura zuzenean, Paula Flemingi DJa eta Pina Bessosa Gineako abeslaria.

kal Herrirako. Bi hauen arteko diferentzia izango da, batean gaztele-raz agertzen dena, bestean frantsesez irakurri ahal izango dela.

Liburuaren diseinuaz Aurelio Bicente arduratu da, «honek jarri dio ordena eta lotura liburuari». Liburuaren azalean ordenagailuko teklatu bat ikus daiteke. Baina botoi bakoitza herrialde ezberdineko zeinu edo ikurra da. Dena den, Bicenterekin esanetan, «zeinu bakoitzak esan nahi duena jakin-go bagenu idatzi ahal izango genuke teklatu horrekin». Beraz, teklatu honen erabilerak esfortzu bat eskatzen du, beste herrialdeetako zeinuek zer esan nahi duten jakin beharra baita aukate idazteko».

Bestalde, Ipuinartean-en bigarren edizio honetan, parte hartu duten artistetako bik, Eduardo Manet eta Nicolas Mezzalira idazleek, testu bana eman dute obra gisa. Manetek bere kubatar haurtzaroan oinarritutako kontakizuna, eta Mezzalirak, ipuin baten zatia.

ARESO ▶

Moto gidari bat hil da istripuan A-15 errepeidean

Atzo arratsaldean moto gidari bat hil zen A-15 errepeidean, Areso parean. Lekunberrirako norabidean, bost autok eta moto batek elkar jo ondoren. Hildakoa 48 urteko donostiarra zen eta, iturrien arabera, galtzadatik atera eta bertan hil zen. Gorpua Nafarroako Medikuntza Institutu-ora eraman zuten autopsia egiteko.

POLITIKA ▶

Iruñeako manifestaziora joateko autobusa

«Azken boladan Euskal Herriari jasan dituen erasoek aurre egiteko» EAEk manifestaziora deitu du biharko. Iruñean egingo dute, Iratzar elkarteak autobusa antolatuta du. Izen-ematea, Iratzarren bertan edo 943693433ra deituta egin daiteke.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egotiza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

POLITIKA ▶

Bilboko atentatua gaitzesteko elkarretaratzeak

Eudelek deituta kontzentrazioak egin zituzten atzo eguerdian, udaletxeen aurrealdean

E. EZEIZA

Asteartean Bilbon ETAK egin dako atentatua gaitzeste asmoz Tolosako Udala osatzen

duten zinegotziak bildu ziren atzo 12:00etan udaletxe aurrean. Bertan izan zen ere Tolosako alkate, eta aldi berean Eudeleko Lehendakari den Jokin

Bildarratz. Honek, euskal herritarren aurka egindako erasotzat jo zuen herenegungoa. Gaineratu zuen ere, «gizarte anitz batean bizi garea onartzen dutenek, eta aldi berean, honen ondorioak errespetatzen dituztenak bakarrik izango direla onartuak joku demokratikoan».

Juan Carlos Domingo Galda-kaoko PSE-EEn zinegotziaren Gabriel Gines bizkartzaina zauritu zen herenegun eguer-

dian Bilboko Abusu auzoan, bere autoan ETAK jarritako bonba lehertu eta autoak su hartu ostean. Indar txikikoa zen autoan jarrita zuen bonba itsatsia, baina, gasolina biltegiaren ondoan zegoenez, sua eragin zuen ez-tandak. Bigarren eta hirugarren graduko erredurak zituen Ginesek (36 urte) buruan, aurrepagan, lepota, besaurre batean eta eskuin-neko eskuan (gorputzaren %6an).

Emakumea behar da bulegoko lanak egiteko

Arratsaldeaz 16:00etatik 21:00etara.

Deitu telefono honetara: 620 692 530

TOLOSA ▶ KULTURA

‘Karabas’ lan berria, etzi ikusgai

Golden Apple Quartet eta Kampingags taldeek aurkeztuko dute ipuin musikala

ERREDAKZIOA

Duela bi urte hasitako proiektuaren jarraipena da *Karabas*. Euskaraz eginiko ipuin musikala da eta *Botadun katu*-ren bertsio bat da. Beraien esperientzia ugariaz baliatuz umeei zuzendutako ikuskizunena maila hobetu nahi dute Golden Apple Quartet eta Kampingags taldekoek. Antzerki musikalean lan egin nahi dute batez ere.

Arte eszenioen sektorean prestatzen ari diren eta profesional mundura salto egiteko prest dauden aktore eta abeslariekin lan egitea «beharrezkoa» dela uste dute, ikuskizunaren «geroa beraiek baitira».

Taldearen lehen proposamena *Galipotx* izeneko obra izan zen eta izugarritzko arrakasta lortu zuten. 15.000 ume, gura-



Karabas ipuin musikala. HITZA

so eta irakaslek ikusi zuten eta orain arrakasta berdina lortu nahi dute.

Estreinaldia Tolosako Leidor zinemaren izango da, etzi, 17:00etatik aurrera.

TOLOSA ▶ ZINEMA

Gazte txartelarekin bi euro balioko du zine forumak aurrerantzean

‘Delirious’ pelikula izango da gaur ikusgai, 19:15ean eta 21:45ean, Leidor aretoan

ERREDAKZIOA

Berrikuntza batekin dator hementik aurrera osteguneroko zine foruma, izan ere, gazte txartelarekin ordaintzen dutenek 2 eurotan eskuratuko dutela sarrera jakinarazi dute antolatzaileek.

Bestalde, gaurko saioan Tom Dillo zuzendariaren *Delirious* filma izango da ikusgai. Estatu Batuetako pelikula da, eta 105 minutuko iraupena du.

Ohiko moduan, 19:15ean izango da lehendabiziko saioa, eta 21:45ean, bigarrena.

Erligioaren bi ordeko post-modernoek, kirol ospeak eta ospe artistikoek alegia, abeslarienganako eta aktoreenganako lilura ia mistikoen inguruan hausnartzera eramaten dute zuzendaria. Gidoi azkarreko filma da *Delirious*, erantzun bizkorrez josia. Halaber, oso eszenaratzeko bizia du, soinu-banda hunkigarria eta ak-



Delirious filmeko kartela.

toreen zuzendaritza aparta. Zuzendaritza Onenaren Zilarrezko Maskorra, Gidoi Onenaren Epaimahaiaren saria eta Signis (Komunikazioaren Elkarteko) saria irabazi zituen 2006an Donostian.

TOLOSA ▶ GASTRONOMIA



Extremadurako kutixiak dastatzeko aukera

Erredakzioa ▶ Extremadurako (Espainia) dehesetan, «ekosistema zainduta», gaur egon ekoizten dituzten abeltzaintzako produktuak eta produktu naturalak aurkeztera etorri berri dira El Pais de Quercus enpresako kideak. Mugaritz jatetxeak, Fronton jatetxeak eta Comercial Urra-

kik ere bat egin zuten aurkezpen ekitaldi honetan, eta hainbat jatetxe entzutetsutako ordezkariak ere izan ziren bildutako enpresen artean. «Ekosistema naturala errespetatuz kalitate goreneko jakiak prestatzea» dutela helburu azaldu zuten parte-hartzaile ugari izan zituen ekitaldian. I. T.

GIZARTEA ▶

DYAk kanpaina berria egin du boluntario bila

ERREDAKZIOA

Pasa den astelehenean DYA Gipuzkoako aste batzuetan zehar erakartzea zuzendua dagoen hedatze kanpaina garrantzitsua bat jarri zuen martxan.

Historiaren zehar bakea, elkartasuna eta berdintasuna bezalako baloreekin lotuta

egon diren pertsona ospetsuen argazkietan oinarrituta dago kanpaina. DYArekin ustez «gizartearen konpromisoa bezalako baloreak ez dira sustatzen eta horregatik boluntario kopurua urria da». Ikasteko go-goia izatea eta denbora libre edukitzea nahikoa direla diote. 943 464622 telefono zenbakira deitu beharko da.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

KIROLA ▶

Futbola berdintasunaren alde

Bihartik igandera Usabalen ospatuko duten Adiskidetasunaren Txapelketan «arraza, erlijio eta pentsamendu desberdineko» taldeek hartuko dute parte

HARRIET BELLOSO

Bihar hasi eta igandera bitarte Usabalgoko kiroldegian Adiskidetasunaren Txapelketa ospatuko dute eta hamabi taldeek hartuko dute parte lehenengo edizio honetan. Peña Blasgrana Tolosarrak antolatu du txapelketa hau. Hainbat erakunde eta jende ugari lagunduz du proiektua aurrera ateratzen.

Hiru selekzioz osaturiko lau taldeek igarketa jokatuko dute urriaren 12an. Talde bakoitzetik lehenengo biak sailkatuko dira eta, hilaren 13an, final-laurdenak jokatzeko azkenik, igandean, hilaren 14an, final handia eta hirugarren eta laugarren postuak izango dituzte jokoan.

Guztira, 12 selekzio

Parte hartuko duten taldeak hauek dira: Euskal Herria, Herrialde Katalanak, Galizia, Ukraina, Extremadura, Maroko, Palestina, Esperanza latina, Andaluzia, Ekuador, Pakistan eta Senegal.

Antolatzaileen esanetan, gure artean bizilekuak dituzten etorkin guztiak parte hartzea da helburua. Izan ere, gizarte-erantzera «era ezin hobean, eta ahalik eta azkarren» emateko aukera paregabekoa da beti ere etolerantzia nagusi izanik.

Hala, kirolaren baloreak heldaraz eta bultzatu nahi dituzte, baita ere jokalaritza gaituzten.



Eskein-eskuin, Koldo Gorostiaga eta Jose Ignacio de Paz, karfela eskustan dute. HARRIET BELLOSO

JOSE IGNACIO DE PAZ ETA KOLDO GOROSTIAGA ▶ PEÑA BLASGRANA TOLOSARRAREN LEHENDAKARIORDEA

«Datorren urteko Adiskidetasunaren Txapelketan selekzio gehiagok hartuko dute parte»

Adiskidetasunaren Txapelketa dela eta Jose Ignacio de Paz Peña Blasgrana Tolosarraren lehendakariordea (Tolosa, 1969) eta antolatzaile lanetan aritu den Koldo Gorostiagak (Tolosa, 1964) txapelketaren zehaztapenak eman dituzte.

Hala nola izan txapelketa?

Hiru lagun bitan jinetan taberna batean honi buruz hitz egingo, baina nahiz eta zenbait ideia eduki oso zaila ikusten genuen txapelketa antolatzeko. Baina epailea den lagun bati esker, proiektu hau aurrera ateratzen hasten zen. Lau hila-

bezko mesoetako selekzioak dituzte? Oso zaila izan da, batez ere talde batzuk oso urrutitik etorri behar direlako. Hasieran, Portugalgo selekzioak txapelketan parte hartu behar zuten, baina zenbait arazo izan dituzte eta ez joaitea erabaki dute.

Esperanza Latina taldekoak joaiteko eskaera egin zioten, eta toki bat libre zegoenez, txapelketan izango dira.

Koldo gehiagok esango al dira?

Gure asmoa urtero txapelketa ospatzea da. Aurturten 12 talde

hartuko dute parte, baina datorren edizioan 16 edo 24 selekzio izan nahi ditugu.

Tolosan izango al da?

Txapelketa antolatzeko leku aproposena Tolosa dela pentsatzen dugu. Talde askok parte hartuko balute, beste herri batzuetara hedatu beharko genuke. Villabona eta Baerako udalietzek beraien kiroldegia eskaini dizkigute datorren edizioarako. Selektzio gehiagorekin txapelketaren iraupena luzatu beharko genuke, eta gure ideia bi edo hiru asteburuetara pasatzea da. ▶

HAINBAT DATU ▶

SELEKZIOAK

- ▶ Euskal Herria
- ▶ Herrialde Katalanak
- ▶ Galizia
- ▶ Andaluzia
- ▶ Extremadura
- ▶ Ekuador
- ▶ Maroko
- ▶ Ukraina
- ▶ Palestina
- ▶ Pakistan
- ▶ Senegal
- ▶ Esperanza Latina

TALDEAK

- A taldea.** Euskal Herria (A1), Palestina (A2) eta Herrialde Katalanak (A3)
- B taldea.** Galizia (B1), Pakistan (B2) eta Ukraina (B3)
- D taldea.** Extremadura (D1), Ekuador (D2) eta Senegal (D3)
- E taldea.** Andaluzia (E1), Esperanza latina (E2) eta Maroko (E3)

PARTIDAK

- Urriak 12 (Lehen kanta)**
 - ▶ A1 Vs. A2 9:30
 - ▶ D1 Vs. D2 11:00
 - ▶ A1 Vs. A3 12:30
 - ▶ D1 Vs. D3 16:00
 - ▶ A2 Vs. A3 17:15
 - ▶ D2 Vs. D3 18:30

Urriak 12 (Bigarren kanta)

- ▶ B1 Vs. B2 9:30
- ▶ E1 Vs. E2 11:00
- ▶ B1 Vs. B3 12:30
- ▶ E1 Vs. E3 16:00
- ▶ B2 Vs. B3 17:15
- ▶ E2 Vs. E3 18:30

Urriak 13: Final-laurdenak (Lehen kanta)

- (1) 1A Vs. 2B 10:30
- (2) 1B Vs. 2D 12:00

Urriak 13: Final-laurdenak (Bigarren kanta)

- (3) 1D Vs. 2E 10:30
- (4) 1E Vs. 2A 12:00

Finalerdia (Lehen kanta)

- (1) Irabazlea Vs. (3) Irabazlea 17:00
- (2) Irabazlea Vs. (4) Irabazlea 18:30

Urriak 14

3. eta 4. postua (Lehen kanta)

- (1) Vs. (3) galtzailea Vs. (2) Vs. (4) galtzailea 10:30

Finala (Lehen kanta)

- (1) Vs. (3) irabazlea Vs. (2) Vs. (4) irabazlea 12:00

LEKUA

Usabalgoko kiroldegian, goizez eta arratsaldean.

NOIZ

Urriak 12-13-14 (bihar, etzi eta igandea).



Euskal Herriko selekzioa.




Extremadurako selekzioa.



Galiziar selekzioa.




Andaluziar selekzioa.



Marokoko selekzioa.



Pakistango selekzioa.



Ekuadorko selekzioa.



Ukrainako selekzioa.



Senegalgo selekzioa.



Esperanza latina selekzioa.

ORDIZIA

TABERNA • BAR

Denetarikoko pinboak, otxartekoak eta plater konbinatuak

Especialitateak:
Olagarroa galiziar erara

Martin Jose Iraola etorb., 4 • TOLOSA
Tel.: 943 01 67 97

TOLOSA ▶ KULTURA

San Esteban auzoko XX. Kultur Astea bihar hasiko da, krosarekin

Hilaren 21era arte iraungo du Ttonttor elkarteak antolatutako egitarauak, eta kulturaren hainbat arlo jorratuko dituzte

ERREDAKZIOA

San Esteban auzoko XX. Kultur Astea prestatzen aritu ondoren bihar ekingo diote hainbat ekintzekin. Datorren aste igandera arte izango dira ekitaldiak. Ttonttor San Esteban Auzokide Kultur Elkarteak antolatuta du.

Azpimarratzekoak, aurten, Tolosako XX. Herri Krosa eta *Ogiyik karri etzun semia* antzezlan dira. Biharko Herri Krosa aurten San Blasera behin igoko da. Izena Shanti kirolak dendan edo lasterketan bertan 11:00ak baino lehen eman behar da eta guztira 10 kilometro egin behar dira.



Joan den urtean 416 korrikalari atera ziren Herri Krosan. M. SORGA

EGITARAUA ▶ XX. KULTUR ASTEA

URRIAK 12, BIHAR

11:00. Tolosako XX. Herri Krosa.

URRIAK 14, IGANDEA

10:30. Auzotik mendi ibilaldia haur eta helduentzat.

URRIAK 17, ASTEAZKENA

20:00. diaporama: *Glaziaretako Parke Nazionaletik ibilbidea*. Poto Gorrotategi eta Belen Eguzkiza.
22:00. *Pequeña Miss Sunshine* filma ikusgai.

URRIAK 18, OSTEGUNA

19:00. Vi. Patata tortilla lehiaketa. Ondoren, luncha.
22:30. Antzerkia: *Ogiyik karri etzun semia*.

URRIAK 19, OSTIRALA

23:00. Kikee taldea, afrikar perkusio tradizionala.
Ondoren. DJ Talo eta Aritz Sound System.

URRIAK 20, LARUNBATA

16:00. Altxorraren Bila eta Mus Txapelketa.
16:30. Haur jolasak.
18:00. Buruhandiak.
19:00. Txokolate-jatea eta Bonberenea txaranga bertan.

00:00. Makala banda eta Boom shakalaka sound system.

URRIAK 21, IGANDEA

09:00. Diana txistulariekin.
10:00. Trikitixa auzoko baserrietan.
11:00. Meza auzoko hildakoan alde, San Frantzisko elizan.
12:00. Toka Txapelketa gizon eta emakumeentzat auzoko txarangak alaituta.
14:00. Auzokideen bazkaria zikiri-jatearekin.
Ondoren. Koxkorrena orkestrarekin dantzaldia.

LIZARTZA ▶ POLITIKA



'Somos España' kanpainaren aurkezpena atzo, udaletxean

Erredakzioa ▶ Lizartzan Belaunaldi Berriak, PPre jarriztaile gazteek, hain zuzen, prentsaurrekoa eskaini zuten. Regina Otaola Lizartzako alkatearekin batera Nacho Uriarte lehendakaria izan zen. *Somos España* kanpaina aurkeztu zuen eta agerraldia urriak 12 egun berezia dela esateko aprobetxatu zuen, «espainiarrentzat egun handia eta garrantzitsua» dela esanez. I. T.

ALTZO ▶ UDALA

Ikastaroetarako diru laguntzak eska daitezke

Udalak baldintza batzuk jarri ditu

ERREDAKZIOA

Altzoko herritarrek kultur eta kirol ekintzak eta ikastaroak burutzeagatik Udalaren eskutik diru laguntzak jasoko dituzte. Hauek Udalak eskaintzen ez dituen ikastaroetan aplikatuko dituzte, baldintza batzuk kontuan hartuz. Guztira 1.500 euro daude aurreikusita eta onuradun bakoitzak ez du urtean 120 euro baino gehiago jasoko.

Honako ikastaroek %75eko diru laguntza izango dute: EGA titulua edo parekoa lortzekoa. %40a, berriz, kontserbatorio, musika eskola edo

akademiatan ikastaroak egiten dituztenentzat. Kostuaren %8a ordainduko dute eskulan, marrazketa eta argazki ikastaroek dagozkienetan, informatikan eta euskara ez diren beste hizkuntzetako ikastaroetan. Azkenik, %7a aipatutako ikastaroen antzekoek dagozkien matrikuletan.

Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioa honako da: Udaleko eskaerorria, ikastaroaren matrikula orria eta ordaindutako kuoten edota ordaintzeko dauden zenbatekoen agiriak. Hilaren 30ean 13:00a baino lehen aurkeztu behar dira agiriak.

ALTZO ▶

Jubilatuaren eguna hilaren 28an izango da

Urriaren 28an Altzon jubilatuen eguna antolatu dute. 11:15ean meza sagusia izango da, ondoren dantzariak eta bertsolariak. 14:00etan, berriz, Arandia jatetxean bazkaria egingo dute eta bertsolariak eta trikitilariak ere izango dira orduan. Izena eman behar da udaletxean, hilaren 23a baino lehen. Honakoa da telefono zenbakia: 943 65 24 13.

ALEGIA ▶

Helduentzako euskal dantza ikastaroa

Alegiko dantza taldeak helduentzako euskal dantza ikastaroa antolatu du. Bertan, Fandango, Arin-Arin eta beste hainbat dantza ikasiko dituzte helduek. Asteartero 19:00etatik 20:00ak arte izango dira klaseak eta izenematea Kultur Etxean egin behar da hilak 20a baino lehen. Ikastaroaren lehenengo eguna hilak 23a, asteartea, izango da.



Helduentzako dantza ikastaroa izango da Alegian. HITZA

IKAZTEGIETA ▶

Nafarroa Oinezera joateko autobusa

Hilaren 21ean Vianan ospatuko den Nafarroa Oinez 2007ra joateko interesa duten guztiori jakinarazten zaie, nahikoa jende apuntatzen bada, hau da, gutxienez 22 lagun, autobusa antolatu dutela Ikaztegiatik haraino joateko. Bertara joateko interesa dutenek izena Udal bulegoetan eman dezakete, hilaren 18a baino lehen. Prezioa 5 eurokoa da.

ALBIZTUR ▶

Tristurari buruzko hitzaldia, astelehenean

Pentsamendu positiboa, tristurari eta negatibismoari aurre egiteko hitzaldia izango da Albizturko Kultur Etxean, datorren astelehenean. 17:00etan izango da, eta nabanakoaren tristurari aurre egiteko estrategiak, triste dagoen pertsona baten aurrean zein jarrera hartu, eta sentimenduak azalaraztearen beharraz ariko dira bertan, besteak beste.

VILLABONA ▶ ERAKUSKETA

Emakumeen lana azalera

Senegalen emakumeak garapenean duen paperaren berri jaso daiteke Gurean dagoen erakusketan

IMANOL GARCIA

Bakerako Lankidetzak Batzarreak (BLB) *Emakume ikusezina* argazki erakusketa jarri du Gurea aretoko erakusgelan, Villabonako Udalaren Ongizate Sailak antolatuta. Senegalen emakumearen egoera nolakoa den azaltzea da erakusketaren helburua. Herrialde afrikarrari buruz hainbat datu ematen ditu erakusketak, bertara joaten dena testuinguruan jartzeko; ondoren, BLBk bertan babesten dituen proiektuen bitartez emakumeek nolako onurak jasotzen dituzten erakusten dute.

BLBko Jesus Hulek azaltzen duenez, «Senegalen emakumearen eta gizonezkoaren artean ezberdintasunak ez daukela esaten da, baina gero errealitatea bestelakoa da. Emakumeak eginkizun tradizioaletara baztertuta daude: haurrak izatea, baratzak eramatea... Emakumearenganako diskriminazioa erreala dela ikusi dugu, batez ere landa eremuetan». Hain justu, erakusketak duen izenburua hor-

DATUAK ▶

Erakusketa. *Emakume ikusezina*.

Lekua. Gurea aretoko erakusgela.

Iraupena. Hilaren 22ra arte.

Ordutegia. Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Larunbatetan, 10:00etatik 13:30era. Igande eta jaiegunetan itxita.

tik dator: «*Emakume ikusezina* jarri diogu, emakumeek garapenean prozesuan, kasu honetan Senagalen, duten papera erakusten baitugu. Lan hori gehienetan anonimatuak egiten dute, ez dira ikusten, baina hor daude. Garrantzia gehiago ematen zaio gizonezkoari eta emakumea estalita dago».

Argazki erakusketaren bitartez BLBk Senegalen babesten dituen proiektuen berri ematen dute —produkzioan, osasunean eta beste arloetan— eta erakusten da proiektu horietan emakumeen parte-hartzea eta onurak zein diren.



Argazki eta testuen bitartez, emakumeen hainbat arlotan duten parte-hartzearen berri jaso daiteke erakusketan. HITZA

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun! ▶

HITZAREN HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko
eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik
eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honekin
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44
Santa Mari plaza, 1 behea

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85
Pablo Gorosabel, 28 • TOLOSA
943 65 40 37

SHANTI
KINOLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urriaren 11, osteguna ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

16

hotzera

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Berazubi auzoko jaien baitan, Homo Demens, Funtastic World eta Desordutan musika talde tolosarren kontzertua Berazubi auzoan 23:00etan, jaien barruan.

Tolosa. Ezker abertzaleak deituta, manifestazioa izango da 20:00etan. Triangulotik abiatuko da *Errepresiorik ez, Euskal Herria hitza eta erabakia* lolopean.

Tolosa. San Esteban auzoko herri krosa urriaren 12an 11:00etan (10 km). Izen-ematea, Shanti Kirolak-en edo irteeran.

Tolosa. Biltoki elkarteak irteera antolatuta du urriaren 18an Arantzazura. Izen-ematea, elkartearen: 23 eurotan.

Villabona. Zaragozako Pilar basilika ikustera irteera antolatuta du urriaren 12rako. Izen-ematea, 630 855500.

Zuzurkil. Teodoro Hernandezena 6. Ipuin Lehiaketa antolatuta du Zuzurkilgo Udalak Aitzondo bailarako adin guztietako herritarrentzat. Azaroaren 30a da lanak entregatzeko epea, udalebekeetan.

ZINEMA

Tolosa. Tom DiCillo zuzendariaren *Delirious* filma emango dute zine-forumean, Leidorren 19:15ean eta 21:45ean. Zilarrezko Maskorra zuzendari onenari, epaimahaiaren saria gidoi onenari eta Signis saria lortu zituen 2006ko Donostiako Zinemaldian.

ERAKUSKETAK



Musika doinuak gaurtik aurrera Bonberenean

TOLOSA ▶ Bi egunez musika doinuak zabalduko dira Bonberenean. Hala, gaur, 22:30etik aurrera, Nuuk-at eta No Humano musika taldeen kontzertuak izango dira entzungai. Gaurko hitzordua gaitzen dutenek bihar ere izango dute kontzertu gehiago entzuteko aukera, izan ere, Natural Project eta Arrasateko Gose taldea —argazkian— emanaldia eskainiko dute 22:30ean. Musikaren

agendarekin jarraituz, datozen egunotan ekitaldi garrantzitsuak izango dira Bonberenean. Bate-tik, Jone bakarlariak, zigilu honekin, argitaratuko du bere *Kateak* disko berria; bestetik, Deabruak Teilatuetan taldearen itzulera izango da. 1973 bere diskoa aurkeztuko du elarik. Halaber, San Esteban auzoko jaiak direla eta, Bonbereneako txaranga kalera aterako da datorren astean. HITZA

Alegia. Paisaiak lantzen dituen Rufino de Toro margolariaren lanak daude jubilatuen tabernan. Asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar daude.

Ibarra. San Bartolome jaietako argazki-erakusketa ikusi ahal izango da Ibarrrako Benito Izagirre kultur etxean astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara bitarte.

Tolosa. Calcuta Ondoan elkarteak antolatutako erakusketa Errota Haur Liburutegian, 17:00etatik 20:00etara (asteburuetan itxita).

Tolosa. Euskal Herriko kalitatezko jateko produktuen erakusketa Kultur Etxean 16:00etatik 20:30era.

Villabona. *Emakume ikusezina* erakusketa Villabonako Gurea aretoan, Senegalgo emakumaren paperari buruz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Etxebeste, J.M. Gemikako arbola, 3. 943 651040.
Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Uma Otezabal Garzia (Amasa).
 Gaur 2 urte. Gure politari, osaba, izeba eta Anderren partetik.

URTE ASKOAN
 Uma Otezabal Garzia (Amasa).
 Gaur 2 urte. Zorionak eta muxuak etxekoan partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza Harpidedunen txokoa

HITZAko harpidedunen artean Astelehenean, Urriak 15, **16:30ean Beotibar pilotalekuan** jokatu diren pilota partidetarako bi sarrera pare **zozketatu**ko ditugu!



Parte hartzeko, deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

Larralde - Cabrerizo

MTZ. DE IRUJO - NALDA III OLAZABAL - BARRIOLA

Uriarte - Arizmendi Apezetxea - Galarza VI